

2019ko ekainaren 2a
SEXU LANGILEEN EGUNA

ANTOLAKUNTZA FEMINISTAZ BOTERETU GAITEZEN!

Putak, emagalduta, urdanga, fulana, ematxar. Etiketak patriarkatuak asmatu zituen. Sindikatuak ixten dituzten horiek asmatu zituzten. Proxeneten patronalen sorrera bultzatzen dutenek eta prostituzioaren aurkako legeak idazten dituztenek. Prostituzioaren indarkeriaz hitz egiten dutenek, baina putak entzun gabe.

Prostituzioa lana den edo ez eztabaida politiko bat da eta mugimendu feministaren baitan eman behar da, prostitutekin batera, zeren eta %99aren feminismoaz hitz egiten dugunean, sexu langileetaz ere ari gara. Noren bizitzak jarri nahi ditugu erdigunean? Putek bere lanaren aitortza eta ahots propioz hitz egitea eskatzen dute; zergatik batzuek sentitzen dute hori galarazteko zilegitasuna? Biktimizatzea, kriminalizatzea edota gure espazioetatik kanporatzearen aurka gaude, (gorputzen -gorputz guztien- merkantilizazioaren, esplotazioaren eta sal-erosketaren aurka gauden moduan).

Gaur egun, inoiz baino garrantzitsuagoa dugu desjabetuok, prekariook, langileok, espoliatuok indarrak batzea, elkar babestea eta ekitea. Erresistentziak eta alternatibak eraikitzeke saretzen gabiltza eta inor ez ahaztea da gakoa. Prostituzioak egungo jendartean jokatzeko duen rolaz hausnartu eta elkarrekin heteropatriarkatu kapitalista honekin bukatuko duen jendartea imajinatzen jarraitu behar dugu.

Guk argi dugu, pertsona askez osatutako herri batek emakumeon* antolakuntza, saretzea, ahalduntzea eta boteretzea ditu oinarri. Putak euren bizitzeko eta eskubideen alde jarduteko subjektu zilegiak dira, eta bide horretan feminismoan kolektiboki borrokatzen jarraitu behar dugu. Antolakuntza feministaz boteretu gaitezen!

